

# EMENDAKINAK

## III. BILTZARREA



# ANTOLAKUNTZA

## EMENDAKINA OSOARI

EMENDAKINA OSOARI



Zbkia

TXT 20086

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

## **BLG/A.H.V.REN SAILATAL SINDIKALAREN BATZORDE IRAUNKORRAK AURKEZTUTAKO ANTOLAKUNTZARI BURUZKO TXOSTEN OSOARI EGINDAKO EMENDAKINA.**

ANTOLAKUNTZARI BURUZKO TXOSTEN osoari egiten zaion EMENDAKINA azaldu baino lehen, ABAGADUNE AZTERKETARI BURUZKO TXOSTENAREN 5 Blokeak (231 lerroaldetik 253ra biok barne), LABen KARAKTERIZAZIO-Az ari dena, ANTOLAKUNTZARI BURUZKO TXOSTENAREN barruan eta txostenaren beraren aurrean egon beharko lukeelakoan gaudela esan behar dugu.

ANTOLAKUNTZARI buruzko txosten ofizial osoari emendakina aurkeztearen karia, gure ustez aipatu txostenak gai honetan orain dauden arazoak ez jasotzea da.

Balio beza gure lanak gure Sindikatuaren III BILTZARREAN gertatu behar den eztabaida zabalerako ekarpen gisa, indar gaitzen eta duela 15 urtetik gora eratu zena gaur egun errealitatea dela erakusten segitzeko.

Txosten hau funtsean afiliatuek sindikatuaren zereginetan daukaten partehartzean oinarritzen da eta honetarako gure ustez iharduteko erabateko autonomia eman behar zaie SAILATAL SINDIKALEI, berauek bait dira erakunde-aren barruko adierazpenik garrantzitsuena.

Biltzarre honetan honako helburu hauek lortu behar direla uste dugu:

- Urte betean afiliatu kopurua bikoiztea.
- Afiliatu guztiei partehartzea ahalbideratzea, bakoitzak bere esperientziak erants ditzan.
- Behetik goranzko (eta ez aldrebes) erakunde bakuna lortzea.
- Espezialistek mugatutako esparruak ekiditea, langile guztien arazoak antzerakoak bait dira, beren zerbitzuak ematen dituzten enpresa mota alde batera utzirik.
- Pertsonalismoak ekiditea (taldea beti gizabanakoa baino jakintsuagoa da).
- Enpresariak garatutako iharduera guztien kontrolatzaile izan behar dugu, Euskadiko industriaren egoera une orotan ezagutzeko.
- Exijentzia osoa militantziari, koadro eta eskuordeei bereziki.
- LABek ordezkatzeko duen eredu sindikalari buruzko ideiak argi edukitzea.
- Militante baten gaikuntzarik onena eguneroko iharduna da, lan batzordeetan parte hartuz eta Asanbladetara joanez.
- Afiliatu bakoitzak beste afiliatu bat lortzeko berezko helburua eduki behar du; honetarako zenbakidun fitxa bana emango zaie, afiliatu berriaren datuez beterik dagokion Afiliazio Batzordeari eman behar izango diona, beronek halaber, lortzen zailtasunak dauzkatenei laguntzeko, hileko jarraipena egingo duelarik.

ANTOLAKUNTZARI buruzko txostenak gure ustez erabat bereizturik dauden bi aspektu jaso behar ditu:

**a) EKINTZA SINDIKALA GARATZEKO ANTOLAKUNTZA**

**b) SINDIKATUAREN KUDEAKETA LANAK EKINTZA SINDIKALAREKIN BAT BURUTZEKO BEHARRERAZKO PERTSONAL KONTRATATUAREN ANTOLAKUNTZA.**

## **EKINTZA SINDIKALA GARATZEKO ANTOLAKUNTZA**

Gure eritziz, gure iharduera sindikalaren arrakasta edo porrota, lan-arloan garatzen dugun Ekintza Sindikala langileek onartua izatearen menpean dago, langileen interesei egokituriko gizarte ereduak lortzerik egon dadin, denok dakigunez indarren koerlazioak gatazken konponketan funtsezko papera jokatzen bait du.

Baliteke baten bat edo batzuzko geratzea bataila bat edo beste irabaziz, baina gure izaeraren funtsa lehenbizi Euskadirentzako AUTONOMIA eta ondoren INDEPENDENTZIA lortzea da eta hau jarrera minoritarioetatik lotzea zaila da.

Epe ertainerako gure helburu nagusia gure sindikatua Euskadiko indartsuena izan dadin lortzea da eta berau langileriaren barruan geure zintzotasuna, onestasuna eta burruka izpiritua eta erakunde zabal eta parteharbidetzkoa erakutsiz baino ez da lortzen, langileen arazoak eurek konpon ditzaten eta LABen afiliatu guztiak baliagarri sentituz, bakoitzaren esperientziak guztiontzat balio dezan.

Egiturak bakuna, zabala eta parteharbidetzkoa izan behar du, esparru itxiak edo arazoak konponduko dizkiguten espezialistak ekidinez, langileen arazoak antzerakoak direlako beren zerbitzuak ematen dituzten enpresa mota kontutan hartzeke.

Honetarako, gure ustez, EGITURAK honako honetan oinarritu behar du:

SAILATAL SINDIKALAK - ESKUALDEETAKO IDAZKARITZAK - HERRIALDEETAKO IDAZKARITZAK - IDAZKARITZA NAZIONALA.

## **AFILIATUEN ASANBLADA OROKORRA (Sailatal Sindikala)**

Lantegi bakoitzean organu gorena da. Sailatal Sindikalaren Batzorde Iraunkorrek konbokatuko du, lantegi barnean sindikatuaren jokabidea aztertzeke edo onartzeko horrela beharrezko izango balitz.

Sailatal Sindikalaren Batzorde Iraunkorreko kideak izango dira moderatzaileak edo lan hauetarako berauek izendatutako afiliatuak.

Asanbladari hasiera eman baino lehen mahaikideak izendatuko dira eta aztergaia egin eta onartuko da.

Bere erabakiak betebeharrezkoak izango dira Sailatal Sindikaleko afiliatu guztientzat.

## **SAILATAL SINDIKALAREN BATZORDE IRAUNKORRA**

Egituraren atalik garrantzitsuena da, Sindikatuaren azken ondorioa beronen atarramendu eta ihardunaren menpean bait dago.

Sailatal Sindikalen Batzorde Iraunkorrek langileek norberaren eta kolektiboaren arazoan arloan (komenioak, espedienteak, araupeketak, e.a.) eskatutako zerbitzurik gehienei irtenbidea emateko gaiturik egon behar dute; benetako protagonistak izan behar dute, Sindikatuaren egiturek eman behar izango duten beharrezko laguntzaren kalterik gabe.

## **OSAKERA**

Ondoko lan batzorde hauek osatu behar dute (afiliatuen kopuruak ahalbideratzen badu):

EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA - EKONOMI BATZORDEA - PROPAGANDA BATZORDEA - ANTOLAKUNTZ BATZORDEA - KUDEAKETA BATZORDEA - AFILIAZIO BATZORDEA - INFORMAZIO BATZORDEA-

Batzorde guztiak hiruna afiliatuk osatuko dituzte (kopuruak ahalbideratzen badu).

**HUTSEN ESTALDURA.**- Edozein batzordetan suertatutako hutsak, gertatu deneko batzordeak berak bete beharko ditu, txosten honetan ezarritako antolakuntz arauetara atxekiz.

**EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA.**- Afiliatuek enpresaren esparruaren barruan dauzkaten lan-gatazken arloko arazo guztiak, bideratzeaz arduratzen da, afiliatuen arazoak, banakakoena nahiz kolektiboak, konponduz edo behar balitz laguntza eskatuz, enpresaren barruko arazoak konpontzeak askoz kostu txikiagoa daukatela kontutan hartuz beti.

Egindako Epaia-Ebazpenen eta egitekoen fitxategia gaurkoturik edukiko du.

**EKONOMI BATZORDEA.**- Sailatal Sindikalaren sarrera eta gastuen jarraipen ekonomikoa egiteaz arduratzen da, egoeraren balantze iraunkorra eta eginez, bai eta beharrezko agiriak ere. Sailatal Sindikal osoaren gastuen frogagiriak jasotzen ditu.

**PROPAGANDA BATZORDEA.**- Sailatal Sindikalari dagokion propaganda, barnekoa nahiz kanpoko, bideratzeko arduraduna.

**ANTOLAKUNTZA BATZORDEA.**- III BILTZARREAN erabakitzen den antolakuntzaren jarraipena egin eta mantentzearen arduraduna, Eskualdekako Idazkaritzari, kasu balitz, desbideraketan berri emanez.

**KUDEAKETA BATZORDEA.**- Ekoizpenak, salmentak, langile kopurua, batzordearen osakera, LABen afiliatu kopurua, etekinak edo galerak eta enpresako beste edozein datu interesgarri buruzko fitxa teknikoko datuak egunean edukitzearen arduraduna.

**AFILIAZIO BATZORDEA.**- Afiliatuei buruzko fitxategia egunean eduki, alta eta baxen jarraipena egin, aldaketen kariak aztertuz, eta afiliazioa ugaltzeko ideiak proposatzearen arduraduna. Fitxan agertu beharreko datuetariko bat afiliatua erakundeko kargurik betetzeko prest dagoenentz da.'

Norbanakoen helburuen jarraipena, afiliatu bakoitzeko afiliatu berri bat alegia, egingo du.

**INFORMAZIO BATZORDEA.**- Prentsa, irratia edo beste komunikabideetan enpresaren barneko gaietan Sindikatua ordezkatzeko arduraduna.

**BILERAK.**- Sailatal Sindikala hilean behin bilduko da, bilera eguna aurretiaz finkaturik (hilabete bakoitzaren lehenengo astelehenean, adibidez, eta jaiegun izatekotan, biharamunean), hilabetean zehar batzorde bakoitzean egondako gorabeherak azaltzeko xedez.

Bilera hauetara Sailatal Sindikalako nahi duten afiliatu guztiak joan ahal izango dira, hizpidea bai baina hautespiderik izango ez dutelarik.

Erabaki guztiak Sailatal Sindikala osatzen duten kide guztien gehiengoaren adostasunaz hartuko dira.

Afiliatu nahikorik ez egoteagatik Sailatal Sindikalik osatu ez deneko enpresek Eskualdeko Idazkaritzaz baliatuko dira Sailatal Sindikala bailitzan, afiliaturen batek enpresako datuak Eskualdekora eramateko ardura hartuko duelarik.

## **ESKUALDEKO IDAZKARITZA**

**OSAKERA.**- Eskualdeko Idazkaritza Sailatal Sindikalak osatzen dituzten lan batzorde berberak osatuko dute.

Batzordeak, Sailatal Sindikalaren barruan ordezkatu duen batzordeko kidea den enpresa bakoitzeko pertsona banak osaturik egongo dira.

Sailatal Sindikalari berari dagokio pertsonak izendatzea.

**HUTSEN ESTALDURA.**— Edozein batzordetan gertatutako hutsa, berau gertatu deneko batzordeak berak estali beharko du, txosten honetan ezarritako antolakuntz arauari jarraiki.

**BILERAK.**— Eskualdeko Idazkaritza hilean behin bilduko da, bilera eguna aurretiaz finkaturik (hilabete bakoitzaren bigarren astelehenean, adibidez, eta biharmunean, hura jaia izanez gero), batzorde bakoitzak hilean zehar bere enpresaren ingurunean egondako gorabeherak eta Eskualdeko Idazkaritzaren beraren egoera azal dezan. Erabakiak Eskualdeko Idazkaritza osatzen duten kide guztien gehiengoaren adostasunez hartuko dira. Eskualdeko Idazkaritzako kideren batek bileraren batetara joaterik izan ez baleza, Sailatal Sindikalaren barruko bere batzordeko partaideren bat izendatuko du ordezteko.

**EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA.**— Eskualdeko Idazkaritzakide diren afiliatuen lan-gatazkei dagozkien eta Sailatal Sindikalek konpondu ez dituzten arazo guztiak bideratzeaz arduratzen da, arazoei irtenbideak emanaz edo laguntza eskatuz, behar izanez gero, ahal den neurrian arazoak Sindikatuaren beste instantzia batzutura igaro dadin ekidinez.

Burututako Epai-Ebazpenen eta burutzeke daudenei buruzko fitxategia gaurkoturik edukiko du.

**EKONOMI BATZORDEA.**— Eskualdeko Idazkaritzaren ekonomi jarraipena egiteaz arduratzen da, beronen berezko jarrera eta gastuei dagokienez, egoeraren balantze iraunkorra eta beharrezko agiriak eginez. Eskualdeko Idazkaritzaren gainontzeko batzordeen gastuen frogagiriak jasoten ditu ere.

Bere iharduketa-eremuko enpresa guztien balantze iraunkorra egingo du, baita Eskualdeko Idazkaritzarena berarena ere.

**PROPAGANDA BATZORDEA.**— Eskualdeko Idazkaritzari dagokion propaganda guztia bideratzeko arduraduna.

**ANTOLAKUNTZ BATZORDEA.**— III BILTZARREA erabakitzen den antolakuntza mantendu eta beronen jarraipena egiteko arduraduna, gerta litezkeen desbideraketak Herrialdeko Idazkaritzari jakinarazi beharko diolarik. Bere eginkizunak Eskualdeko Idazkaritzan betetzen dituen pertsonal kontratatuaren arazoan arduraduna.

**KUDEAKETA BATZORDEA.**— Ekoizpenak, salmentak, etekinak edo galerak, langile kopurua, batzordeen osakera, LABen afiliatu kopurua eta bere eremuko enpresetan sor daitezkeen datu interesgarri guztiei buruzko fitxa teknikoak gaurkoturik edukitzeko arduraduna.

**AFILIAZIO BATZORDEA.**— Eskualdeko Idazkaritzako afiliatuei buruzko fitxategia gaurkoturik eduki, alta eta baxen jarraipena egin aldaketan kariak aztertuz, eta afiliazioa ugaltzeko ideiak proposatzeko arduraduna. Fitxan afiliatua erakundeko kargurik betetzeko prest dagoenentz agertu behar da. Norbanakoei dagozkien helburuen jarraipena, afiliatu bakoitzeko afiliatu berri bat, alegia, egingo du.

**INFORMAZIO BATZORDEA.**— Prentsa, irratia edo beste komunikabideetan Eskualdeko Idazkaritzaren gaietan Sindikatua ordezkatzeko arduraduna.

## **HERRIALDEKO IDAZKARITZA**

**OSAKERA.**— Herrialdeko Idazkaritza Sailatal Sindikalak eta Eskualdeko Idazkaritzak osatzen dituzten lan batzorde berberak osaturik egongo da.

Batzordeak, Eskualdeko Idazkaritza barruan ordezkatu duen batzordeko kidea den pertsona banak osaturik egongo dira.

Eskualdeko Idazkaritzari berari dagokio pertsonak izendatzea.

**BILERAK.**— Herrialdeko Idazkaritza hilean behin bilduko da bilera aurretiaz finkaturik (hilabete bakoitzeko hirugarren astelenean, adibidez, eta biharamunean hura jaia izanez gero) batzorde bakoitzak hilean zehar egondako gorabeherak azal ditzan.

Erabakiak Herrialdeko Idazkaritza osatzen duten kide guztien gehiengoaren adostasunez hartuko dira.

Herrialdeko Idazkaritzako kideren batek bileraren batetara joaterik izango ez balu, Eskualdeko idazkaritzaren barruko bere batzordean parte hartuko duen ordezkari bat izendatuko du.

**EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA.**— Oraindik dagozkien Eskualdeko Idazkaritzek konpondu ez duten Herrialdeko afiliatuen lan-gatazkei dagozkien arazo guztiak bideratzearen arduraduna da, arazoak konponduz edo laguntza eskatuz beharrezkoa balitz, ahal dela arazoa Sindikatuaren beste instantzietara pasa dadin ekidinez. Burututako epai ebazpen eta egitekoen fitxategia gaurkoturik edukiko du.

**EKONOMI BATZORDEA.**— Herrialdeko Idazkaritzaren ekonomi jarraipena egiteaz arduratzen da, beronen sarrara eta gastuei dagokienez, egoeraren balantze iraunkorra eginez, bai eta beharrezko agiriei dagokienez ere. Herrialdeko gainerako batzordeen gastuen frogagiriak jasotzen ditu.

Eskualde guztien eta Herrialde beraren egoerari buruzko balantze iraunkorra burutuko du.

**PROPAGANDA BATZORDEA.**— Propaganda guztia bideratzeko eta iharduera honek dakartzan arazoak konpontzeko arduraduna da.

**ANTOLAKUNTZ BATZORDEA.**— III Biltzarrean erabakitzen den antolakuntza mantendu eta beronen jarraipena egitearen arduraduna, desbideraketak, baleude, idazkaritza nazionalari jakinarazi beharko diolarik.

Bere eginkizunak Herrialdeko Idazkaritzan betetzen dituen pertsonal kontratatuaren arduraduna.

**KUDEAKETA BATZORDEA.**— Ekoizpenak, salmentak, etekinak edo galerak, langile kopurua, batzordeen osakera, LABen afiliatu kopurua eta bere arloko enpresetan gerta daitezkeen datu interesgarri guztien fitxa teknikoak gaurkoturik edukitzearen arduraduna.

**AFILIAZIO BATZORDEA.**— Herrialdeko Idazkaritzako afiliatuen fitxategia gaurkoturik eduki, alta eta baxen jarraipena egin, aldaketen kariak aztertuz, eta afiliazioa ugaltzeko ideiak proposatzearen arduraduna.

Fitxan, afiliatua erakundeko kargurik betetzeko prest dagoenez agertu behar da.

Norbanakoen helburuen jarraipena, afiliatu bakoitzeko afiliatu berri bat alegia, egingo du.

**INFORMAZIO BATZORDEA.**— Prentsa, irratia edo beste komunikabideetan Herrialdeko gaiei dagokienez Sindikatua ordezkatzaren arduraduna.

## **IDAZKARITZA NAZIONALA**

**OSAKERA.**— Idazkaritza Nazionala Sailatatal Sindikalak, Eskualdeetako Idazkaritzak eta Herrialdeetako Idazkaritzak osatzen dituzten lan batzorde berberak osatuko dute.

Batzordeak, Herrialdeko Idazkaritzaren barruan ordezkari batzordeko kidea den Herrialdeko Idazkaritza bakoitzeko pertsona banak osaturik egongo dira.

Herrialdeko Idazkaritzari berari dagokio pertsonak izendatzea.

**HUTSEN ESTALDURA.**— Edozein batzordetan gertatutako hutsak berauek gertatu direneko batzordeak berak estali beharko ditu, Txosten honetan ezarritako antolakuntz arauari jarraiki.

**BILERAK.**— Idazkaritza Nazionala hilean behin bilduko da bilera aurretiaz finkaturik (hilabete bakoitzeko laugarren astelehenean, adibidez, eta biharamunean, hura jaia izanez gero) batzorde bakoitzak hilean zehar egondako gorabeherak azal ditzan.

Erabakiak Idazkaritza Nazionala osatzen duten kide guztien gehiengoaren adostasunez hartuko dira.

Idazkaritza Nazionaleko kideren batek bileretara joaterik izango ez balu, Idazkaritza Nazionalaren barruko bere batzordean parte hartuko duen ordezeko bat izendatuko du.

**EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA.**— Oraindik konpontzeke dauden Sindikatuko afiliatuen lan-gatazkei dagozkien arazo guztiak bideratzearen arduraduna da.

Gertaerei aurrea hartuz, ekintza sindikal eta erreibindikatiboaren estrategia garatzeko lanak egin.

**EKONOMI BATZORDEA.**— Idazkaritza Nazionalaren ekonomi jarraipena egiteaz arduratzen da, beronen sarre-  
ra eta gastuei dagokienez, egoeraren balantze iraunkorra eginez, bai eta beharrezko agiriei dagokienez ere.

Sindikatuaren gainerako batzordeen gastuen frogagiriak jasotzen ditu.

Kuotak berriztatzea proposatzen du Sindikatuko maila guztietan eztabaidatua izan dadin, bai eta diruzantzaren oreka mantentzeko beharrezkoa den edozein neurri ere.

Sindikatu osoaren egoeraren balantze iraunkorra egingo du.

**PROPAGANDA BATZORDEA.**— Propaganda guztia biderateko arduraduna.

**ANTOLAKUNTZ BATZORDEA.**— III Biltzarrean erabakitzen den antolakuntza mantendu eta beronen jarraipena egitearen arduraduna.

Pertsonal kontratatu ororen arazo guztien arduraduna.

**KUDEAKETA BATZORDEA.**— Ekoizpenak, salmentak, etekinak edo galerak, langile kopurua, batzordeen osakera, LABen afiliatu kopurua eta gerta daitezkeen datu interesgarri guztien fitxa teknikoak gaurkoturik edukitzearen arduraduna.

**AFILIAZIO BATZORDEA.**— Sindikatuko afiliatuen fitxategia gaurkoturik eduki, alta eta baxen jarraipena egin, aldaketen kariak aztertuz, eta afiliazioa ugaltzeko ideiak proposatzearen arduraduna.

Fitxan, afiliatua erakundeko kargurik betetzeko prest dagoenentz agertu behar da.

**INFORMAZIO BATZORDEA.**— Prentsa, irrati edo beste komunikabieetan, beste sailek konpondu ez duten gai nazionaleri dagokienez sindikatua ordezkatzearen arduraduna.

Ikus daitekeenez, Idazkaritza Nazionaleko kideak, Saiatal Sindikal, Eskualdeko Idazkaritza eta Herrialdeko Idazkaritzetako kideak dira, horixe da bilerak aste ezberdinetan egitearen karia eta ahal dela asteko egun berean, beren denbora hobeto banatu ahal izateko.

Argi dago, lan batzorde ezberdinetan aipatu duguna eginkizun nagusiaren ideia da, hala ere batzordeei beraueta-ko kideek edukiko dituzten ilusioak eta lan egiteko gogoak benetako edukina emango diete.

## **PERTSONAL KONTRATATUAREN ANTOLAKUNTZA**

EKINTZA SINDIKALA garatzeko aurreko atalean aurkeztu dugun antolakuntza militanteen parte hartze eta ardura ditu oinarri, boluntarismoak aparte utzita, lan batzorderen baten kide izateko hitza eman duten guztiei kudeaketa-  
ren ardura eta emaitzak eskatuz.

Honek nolabait Sindikatuak ordaindu ezin duen soldatapeko liberaturik ez edukitzea ahalbideratzen digu, Sindikatu ez bait da INEM (EIN).

Pertsonal kontratatuaren ORGANIGRAMA funtzional bat egiteko beharrezkoa da funtsezko premisa bi ezgutzea:

- a) Sindikatuaren ahalbide ekonomikoak.
- b) Egiteko zeregin eta lan sorta.

Hala ere premisa bi horiek ezagutzeaz gain, beharrezkoa da hainbat erizpide ezartzea kostuak eta pertsona kopurua zenbatu ahal izateko.

Gure eritziz, beharrezkoa deritzogu Sindikatuaren zerbitzura dagoen soldatapeko pertsonal guztiak lan kontratua eduki eta Segurtasun Sozialari ordaintzeri, langile orok edozein enpresatan bezala.

Egin beharreko eginkizunei dagokienez alokairu-eskala bat egon behar dela uste dugu.

Bete beharrezkotzat jotzen ditugun gutxienezko postuak ondoko hauek dira (berauek zabaltzea Sindikatuaren ahalbide ekonomikoen arabera izanik).

Sindikatuaren edozein estamendutan plantila zabaltzeko beharrak txosten batetan bidaliko zaizkio Idazkaritza Nazionalera, beharrak argudiatuz.

Erabakia Antolakuntz Batzordearen esku egongo da, berau Ekonomi Batzordearen aldeotasunaren jabe izanik.

Idazkaritza Nazionalak plantila zabaltzea onartuz gero, pertsonal kontratatuaren hutsen estaldurari dagokion atalarekin bat burutuko da.

Eskualde eta Herrialde bakoitzeko liberatu bana Eskualde eta Herrialdeko Idazkaritza osatzen duten batzorde ezberdinek eskaturiko iharduera sindikalak koordinatzeko arduraduna izango dena.

Eskualde edo Herrialdera heltzen diren ohar guztiak hartzea ukitzen dituzten pertsona guztiei jakineraziz.

Dauden idazmakinak eta ordenagailuak Sindikatuaren kudeaketarako erabiltzea.

Lokala egoera txukunean mantentzea (beharrezko liratekeen garbiketa eta mantenu zerbitzuak erabiliz, Eskualde edo Herrialdeko ekonomi batzordearen alde aurretiko baimenaz).

Artxibo eta altzariteriaren zaintza eta ordenaren arduraduna lan denboraren barruan.

Eskualde edo Herrialdeko bileretara joango da eskatuko zaizkion beste datu eman dezan.

Profesionariz osatzeko diren beste sailak ondorengo hauek dira:

Idazkaritza teknikoa-Idazkaritza Ekonomikoa eta Idazkaritza Juridikoa, EKINTZA SINDIKALA ponentziako 3.9 atalean garatutako zeregin eta eginkizunekin bat etorritik.

Pertsona kopurua eta sail hauen antolakuntza aurretik aipaturiko a) eta b) premisen arabera da, zenbait aldagai egon daitezke.

Herrialde guztietan Idazkaritzak egon daitezke adibidez, edo denak zentralizatuak.

Zerbitzu Juridikoa aholkularitza edo baita afiliatuarekiko urgazpena izan daiteke aurkezturiko eskarien konponketan.

Gaia hain zaila izanik, Biltzarrean ardatz nagusiak onartu eta batzorde bat izenda dadin proposatzen dugu. Batzorde honek ekonomi eta antolakuntz azterketa burutuko luke gehienez 3 hilabeteko epean, azterketa Batasun Nazional batetan aurkeztu eta bertan onar dadin.

Operatibotasunagatik Batzordea gehienez 3 pertsonaz osaturik egon behar duela deritzogu.

Iradokizun gisa, interesgarria litzateke ikuspuntu ezberdinak kontrajartzeko Herrialde bakoitzeko batzorde bana osatzea independenteki lan eginez, lana burutu ondoren bilduz erabatekora heldu edo ezpakiak egotekotan dauden alternatiba guztiak Batasun Nazionalari aurkezteko.

## **KONTRATATUTAKO PERTSONALAREN HUTSEN ESTALDURA**

Erakundearen barruan gertatzen diren hutsak hilabete batez jarriko dira Eskualdetako Idazkaritzetako iragarki oholean, bete beharreko postuaren ezaugarriak azalduz.

Eskualdetako Idazkaritzek bilduko dituzte hutsa estali nahi dutenen eskaerak.

Hutsa Eskualdeko Idazkaritzaren batetan gertatuz gero hutsa gertatu deneko Eskualdera bidaliko dira, berau aurkezturiko eskaera guztien artean, hautagaia hautatzearen arduraduna izango delarik.

Hutsa Herrialdeko Idazkaritzan edo Nazionalan gertatuz gero Eskualdeetan bilduriko eskaerak hutsa gertatu deneko Idazkaritzara bidaliko dira, berau hautagaia hautatzearen arduraduna izango delarik.

Gertaturiko hutsa estaltzeko beharrezko diren tramite guztiak, dagozkien Antolakuntz Batzordeen ardura eta esku-menekoak izango dira.

Ekonomi sailean gure ustez iharduera sindikala zalutasun eta eraginkortasun handiagoz burutu ahal izateko, Sailatal Sindikalek, Eskualdeetako Idazkaritzek, Herrialdeetako Idazkaritzek eta Idazkaritza Nazionalak beraien afiliazio kuotaren %25en baliokidea den aurrekontua esleiturik eduki behar dute.

Sailatal Sindikal Baten barruan ez dauden afiliatuen kuotak, Eskualdeko Idazkaritzari beraren kuotaren %50 egokitu-tuko zaio.

Idazkaritza Nazionalerako Sindikatuaren sarreren gehiengoa esleiturik egonik (afiliazio guztiaren kuoten %25 gehi kuotetatiko aparteko sarrerak) Sindikatuaren zama finkoak Idazkaritza Nazionalaren pentsutan egongo dira.

Sindikatuaren estamentu batzuen parte hartzea eskatuko duten zerbitzuak, estamentu bakoitzean sortutako kostuaren arabera zamatua izango dira.

BLG/A.H.V.REN SAILATAL SINDIKALAREN BATZORDE IRAUNKORRA